

Prensa oharra

Nota de prensa

Kontxako pasealekua itxita egongo da ibilgailuentzat igandeetan eta jaiegunetan

Pasealekua oinezkoentzat eta bizikletentzat bakarrik izango da 9:00etatik 19:00etara neguan, eta 9:00etatik 21:00etara udan.

Kontxako pasealekua itxita egongo da igande eta jaiegunetan mota guztietako ibilgailu motordunetan, asteburu honetatik aurrera. Beraz, pasealekua oinezkoentzat bakarrik izango da.

Pilar Arana Mugikortasuneko zinegotziak adierazi duenez, “neurri hau mugarik gabe gauzatuko da oinezkoen eta txirrindularien pasealekua bultzatzeko, eta are garrantzi handiagoa du distantzia soziala eta aire zabaleko espazioak hain garrantzitsuak diren une hauetan”. Aranak nabarmendu duenez, “beste batzuetan egin da mozketa hori, esate baterako, konfinamenduaren deseskaladan edo Mugikortasunaren asteko `Aurorik gabeko egunaeen`, eta oso emaitza onak izan zituen”.

Abenduaren 6tik aurrera martxoaren 21era arte, pasealekua itxita egongo da igande eta jaiegunetan, 9:00etatik 19:00etara, eta, egun horretatik urriaren 31ra, 9:00etatik 21:00etara.

Kontxa pasealekuaren eta Mirakontxa pasealekuaren arteko elkargunean egingo da mozketa (Mirakontxako igoera irekita geratuko da), Zumalakarregi hiribidea eta Satrustegi hiribidea lotzen diren tokiraino.



Dbusen aldaketak

Mozketa hau dela eta, Antiguoko Dbusen lineek ondorengo ibilbidea egingo dute:

- 5-Benta Berri, 18-Seminarioa, 25-Benta Berri-Añorga, 33-Larratxo-Intxaurrondo-Antiguo-Berio eta 45- Estaciones Renfe-Bus Geltokiak-Antiguo-Aiete:

Prentsa oharra

Nota de prensa



Joaneko noranzkoan: Sanserrekatik joango dira, eta Pio Barojatik jaitsiko dira Antiguorantz eta, gero, ohiko ibilbidea egingo dute. Ez da geltoki bat ere aldatuko.

Itzulerako noranzkoan: Pio Barojatik igoko dira, eta Aldapetatik jaitsi. Ondoren, ohiko ibilbidea egingo dute. **Ondarretako geltokia kendu egingo da eta Esklabetara edo Pio Baroja 4ra eramango da. San Martin 57ko geltokia zerbitzurik gabe geratuko da.**

- **16-Igeldo:** Ohiko ibilbidea egingo du. Joaneko zein itzulerako noranzkoetan, Sanserrekatik joango dira eta geltoki guztiak mantenduko dira.

Donostia, 2020ko abenduak 2